

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak tokiko erakundeei 2,9 milioi euro eman dizkie langabeak kontratatzeko

Udalek eta mankomunitateek 655 pertsona kontratatuko dituzte, eta kopuru horretatik 126 gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzen hartzaileak dira

Jueves, 14 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#), interes orokorreko obra edo zerbitzuetan [langabeak kontratatzeko tokiko erakundeentzako diru-laguntzen deialdia](#) ebatzi du, 2.906.976,30 euro gutkira.

Deialdi horren % 50a Europako Gizarte Funtsak (EGIF) kofinantzatzen du.

Estatuak programa horri 7.460 euro ematen dizkio; aurreko urteetan, aldiz, deialdi horren aurrekontu ia guztia konferentzia sektorialetik etorritako diruarekin eta EGIFen finantzaketarekin finantzatzen zen.

Tokiko erakundeek deialdi honetarako 241 eskaera aurkeztu ditu, eta haietatik 236ri laguntza eman zaie. Gainerakoei uko egin zitzaizen eskatutako gutxieneko puntuaziora ez heltzeagatik edo epez kanpo aurkezteagatik.

Aurkeztutako memorien arabera, tokiko erakundeek laguntza horiekin 655 pertsona kontratatuko dituzte, eta haietatik 126 gizarteratzeko errenten hartzaileak dira edo gizarteratzeko edo laneratzeko laguntzen hartzaileak eta 507 honako kolektibo hauetakoak dira: 50 urte baino gehiagokoak, 30 urte baino gutxiagokoak, ezintasuna duten pertsonak edo iraupen luzeko langabeak.

Pertsona hauen kontratazioa bateragarria da Nafarroako Gobernuaren aparteko neurriarekin, hau da, tokiko erakundeek kontratatzea gizarteratzeko errenten hartzaileak edo gizarteratzeko edo laneratzeko laguntzen hartzaileak, eta Gizarte Politikako Departamentuak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuta dagoena.



Langileak.